

Argiketariak

Cristina Soto

1. ESZENA

Sartzen dira hiru argiketari erraminta-kutxarekin eta eskailera ba-tekin, eta argiketari 2 bokata batekin.

Argik. 1: Argindarra joan da, eta elektrizitate-koadroa hemen da-goela esan didate.

Argik. 2: Bai, hor dago!

Argik. 3: Ai ama! Baina zer da hau? Konpontzea lortzen badugu, munduko argiketaririk hoberenak izango gara!

Argik. 1: Hau desastrea! Nagusiari eskatuko diot soldata igotzeko.

Argik. 2: Seguru nago lortuko dugula. Nagusiari erakutsiko diogu hoberenak garela! (Hirurek egiten dute barre)

Argik. 3: Tira, has gaitezen lanean. Gaur afaltzeko geratuta nago eta ez dut berandu heldu nahi.

Argik. 1: Lasai egon. Oso trebeak gara, eta ez duzu arazorik izango. (Hirurek egiten dute barre)

Argik. 2: (Paperak bilatzen hasten da) Non demontre sartu ditugu gure oharrak?

Argik. 3: (Erraminta-kutxan begiratzen du) Hemendik utzi genituen... Hemen daude!

Argik. 1: (Paperak hartuz) Lehenengo eta behin, jakin behar dugu zenbat kable dauden.

Argik. 2: Kable gorri bat dago, beste bat urdina...
Argik. 3: Kable marroi bi... Beltz bat, urdina eta larrosa.
Argik. 1: Beste zuri bat eta... Zein koloretakoa dira azken horiek?
Argik. 2: Moreak? ... Guztira hamar daude. Hau guztia antolatu behar da.
Argik. 3: Hau honekin joan beharko da... (Lotzen ditu)
Argik. 1: Hauek lotuta egon behar dira...
Argik. 2: Kable hau txarto dago, beste honekin doa... eta horrela, listo!

Argindarra etorri eta joan egiten da.

Argik. 3: Zer gertatzen da? Zerbait txarto egin dugu?
Argik. 1: Ez dakit, baina... erre usaina dago.
Argik. 3: Badakit! Kable hau falta da! (Leherketa baten soinua)

Garrasi egiten dute hirurek, eta argia joaten da.

2. ESZENA

Hirurak lehen geratu diren bezala daude, baina ilea nahasi eginda.

Argik. 1: Zer gertatu da?
Argik. 2: Non gaude?
Argik. 3: Beste toki batean! Zelan da posible?

Une horretan, Mexikar bi agertzen dira.

Argik. 2: Barkatu! Galdu egin gara. Esango al diguzue non gauden?
Mexikar. 1: Hirian, wey.
Argik. 2: Barkatu? Hirian?
Mexikar. 1: Bai wey, hirian.

Argiketariak elkarri begiratzen diote.

Argiketariak: *Mexiko Hirian!!!*
Mexikar. 2: *Chévere, Chilangolandia!*
Argik. 3: *(Harrituta) Baina, elektrizitate koadroak hemen jarritzen du!*
Mexikar. 1: *¡Cuate, aquí hay tomate!*
Mexikar. 2: *¡Arriba, arriba!*

Mexikar abestia

Mexiko Hirian gaude
Jaio garen herrian
Musika da gustoko
Alaia da jendie
Ni Guadalupe deitzen naiz
Nire izena da Abelina
Neska kantariak gara
Ongi etorri gure herrira
Mexiko Hirian gaude
Ongi etorri gure herrira
Hartako arrantxo handian
Gure laguna bizi da
Laguntza behar izanez gero
Bera da polizia, bera da polizia
Galduta dagoen jendie
Laguntzen dute bidien
Trokota bere zaldiek
Badakiz bide guztiek
Mexiko Hirian gaude
Ongi etorri gure herrira

Argik. 3: *(Negarrez) Ez naiz afarira ailegatuko.*
Argik. 1: *Ixo! Zure errua izan da!*
Argik. 3: *Nire errua ez da izan, zuetariko norbaitena baizik!*

*Argik. 2: Bai zera! Guk paperak zekarrena jarraitu
dugu!*

Argik. 3: Eta nik!

*Argik. 1: Ez dakit noren errua izan den, baina niri
bururatzen zaidan gauza bakarra da kableak
aldatzea...*

Argik. 2 eta 3: Ez!!!

Argindarra joan eta etorri egiten da.

3. ESZENA

*Argik. 1: Hau sinestezina da! Ez duzue asmatuko orain non
gauden!*

Argik. 3: Ez dakit, baina hemen hotz handia egiten du.

Errusiar abestia

Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia
Basoan pasatzen duzu beti hotz handia
Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia
Zatoz ba hirira gurekin, bihotza
Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia
Basoan pasatzen duzu beti hotz handia
Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia
Zatoz ba hirira gurekin, bihotza
Zatoz, dantza eitera gurekin
Bazkaltzera gurekin
Zu gonbidatuta zauz gure etxera
Dantza eitera gurekin
Afaltzera gurekin
Gera zaitezke gero lo eitera (BIS)
Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia

Basoan pasatzen duzu beti hotz handia
Katrin, ai Katrin, ai Katrin maitia
Zatoz ba hirira gurekin bihotza (BIS 3) Eiii!!

- Errusiar. 1:* *Arropa gutxi daramate hauek, ez al dute hotzik izango?*
- Errusiar. 2:* *Kanpotar itxura dute.*
- Errusiar. 3:* *Ziur janari arraro horrek beroa ematen diela...
Baina zer demontre izango da hori?*
- Errusiar. 2:* *Galdetuko diegu. Priviet!*
- Errusiar. 1:* *Estovi piotxi?*
- Argik. 1:* *Barkatu? Ez gara hemengoak eta errusiera ez dugu ulertzen.*
- Errusiar. 1:* *Uste dut ez dutela ulertzen.*
- Errusiar. 2:* *Argi dago kanpotarrak direla.*
- Errusiar. 3:* *Ba, nik, janari arraro hori probatu nahi dut.
Mosna paprobabatz? (Baimena eskatu barik,
bokata hartu, eta hozkada bat ematera doa)*
- Argiketariak:* *Eeezzzz! Bere merienda da!*
- Argik. 2:* *Janez gero... (Hiltzeko keinua egiten dio)*
- Errusiar. 3:* *Spasiba, spasiba. Eskerrak abisatu didaten!*
- Errusiar. 1:* *Bai, baina zertarako nahi izango dute janari hori, hain arriskutsua bada?*
- Errusiar. 2:* *Ideiarik ere ez. Arraro samarrak dira. (Badoaz)*
- Argik. 1:* *Ia-ia eta merienda barik geratu zara.*
- Argik. 3:* *Nik joan nahi dut hemendik. Hotz naiz, eta afaria daukat!*
- Argik. 2:* *(Bokata jaten duen bitartean) Goazen ba!*

Kable bat aldatzen dute eta argindarra joaten da.

4. ESZENA

Argik. 2 eta Argik. 3 eszenatoki erdian. Albo batetik Argik. 1 sartzen da.

Argik. 1: Ez duzue asmatuko orain non gauden!

Argik. 2: Eskerrak hemen zauden!

Argik. 1: Italian gaude!

Argik. 3: Orain Italian gaude? Ez naiz afarira helduko!

Italiar bat sartzen da.

Italiar. 1: Bentornatos, benvenitos al nostro ristorante! Camerieres, per favore!

Italiar. 2: Spaghetti con pomodoro per lo nobilumes.

Italiar. 3: Pizza dolce come secondo.

Italiar. 4: E uno Ricco Cannoli.

Italiar abestia

Spaghetti con pomodoro per lo nobilumes
Pizza dolce come secondo per lo nobilumes
E uno Ricco Cannoli per lo nobilumes
Bon Appetit, nobilume, nobilume, nobilume
Hemen gure platerak
Goxo daude benetan
Gure sukaldariak dira
Munduko onenak
Hemen gure platerak
Goxo daude benetan
Gure sukaldariak dira
Munduko onenak
Spaghetti con pomodoro per lo nobilumes
Pizza dolce come secondo per lo nobilumes
E uno Ricco Cannoli per lo nobilumes

Bon Appetit, nobilume, nobilume, nobilume
Hemen gure platerak
Hau da zuen afaria
Ea gustuko duzuen
On egin, bezerook!

Argik. 3: Baina nik ez dut hemen afaldu nahi!

Argik. 2: Ba, nik, aprobetxatuko dut. Honek goxo-goxoa egon behar du!

Argik. 3: Ba, nik, beste kable bat mugituko dut. (Kablea hartzen du)

Argik. 1: Itxaron!

Argindarra joaten da.

5. ESZENA

Argik. 3 alde batetik bestera dabil korrika. Bat-batean, beste biak agertzen dira, eta harrিতuta gelditzen dira, Argik. 3 begiradaz jarraituz.

Argik. 2: Izugarri goxo zegoen afaria!

Argik. 1: Zertan ari zara?

Argik. 2: Ondo al zaude? (Isilune luze baten ondoren...)

Argik. 3: Honek ez du funtzionatzen. Ez dugu arrakastarik izan. Porrot egin dugu, porrot egin dugu!

Argik. 2: Lasaitu zaitetz, eta egon geldi, mesedez! (Gelditu egiten da). Zerbait okurrituko zaigu.

Argik. 3: Ez gara sekula etxera bueltatuko!

Argik. 1: Sssh! Pentsatzen nago! Mmmm... begiratuko dugu poltsikoetan, ea zer dugun. (Gauza bitxiak eta arraroak ateratzen dituzte, eta horiekin jolasten dira.)

Argik. 2: Ideia bat daukat! Kable guztiak lehen zeuden bezala utziko ditugu.

Argik. 3: Egia! Horrela etxera bueltatuko gara!

- Argik. 1:* *Bueno, proba egin dezakegu. Ez dugu ezer galtzekorik.*
(Kableak aldatzen dituzte, eta argizatze-aldaketa dago.)
- Argik. 3:* *Etxean gaude!*
- Argik. 2:* *Lortu dugu!*
- Argik. 1:* *Bai! Munduko argiketaririk onenak gara!* (Musikarekin ospatzen dute)
- Argik. 3:* *Orain afarira noa. Nire lagunei kontatzen diedanean, Agur!*

6. ESZENA

Mexikarrak, errusiarrak eta italiarrak mozorroak kentzen ari dira.

Argik. 3 sartzen da eta, mozorroak ezkututzen dituzte guztiek.

- Lagun. 1:* *Joateko zorian geunden...*
- Argik. 3:* *Barkatu.*
- Lagun. 2:* *Zer gertatu zaizu ba?*
- Argik. 3:* *Istorio luzea da...*
- Lagun. 3:* *Ea ba, afaltzen dugun bitartean kontatuko diguzu.*

Badoaz, barreak ezkututzen. Beste aldetik sartzen dira Argik. 1 eta Argik. 2 barrezka.

- Argik. 1:* *Dena sinestu du! Ez da konturatu gaur abenduaren 28a dela, Inuzente Eguna!*
- Argik. 2:* *Aktore onak gara gero! Kar-kar-kar!*

AMAIERA. (Guztien dantza)

